




Ekonomia %3,8 hazi zen hirugarren hiruhilekoan

EAEko barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek gaur argitaratu duenez, EAEko ekonomia %3,8 hazi zen urte arteko tasan 2022ko hirugarren hiruhilekoan. Eskaintzaren aldetik egindako azterketak iradokitzen du hiru sektore nagusiek aldakuntza tasa nabarmenak izan ziztuztela, batez ere zerbitzuetan (%4,3), merkataritza, ostalaritza eta garraioa barne hartzen dituen atalaren bultzadari esker (%9,9).

Lanpostuen kopurua %2,0 gehitu zen

Lanaldi osoko lanpostuak
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.


Kontu ekonomikoek enpleguaren bilakaeraren estimazioa ere eskaintzen dute. **Estatistika horren arabera, urte arteko hazkunde tasa %2,0 izan zen, hau da, 19.600 enplegu berri inguru.** Horrek esan nahi du EAEko ekonomiaren lanpostu guztiak milioi bat inguru direla orain eta 2008ko zifrak berreskuratu direla.



Azalera handietako salmentak %0,8 jaitsi ziren urrian

Azalera handietako salmentak

Urte bakoitzeko urria. Indizea




Iturria: Eustat.

Urrian, azalera handietako eta elikadura kateetako salmentak %0,8 murriztu ziren aurreko urtearen aldean. Beherakada elikagaien salmentan gertatu zen soilik (-%2,1) eta gainerako produktuetan %2,0 igo zen salmenta. Halaber, jarduera horretako enpleguak %4,7ko urte arteko hazkundera izan zuen.

Estatuko KPIa %6,8ra jaitsi zen azaroan

Estatuko KPIaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

KPI indizearen adierazle aurreratu %6,8an kokatu zen azaroan, urrian erregistratutakoa baino puntu erdi bat beherago. Bilakaera hori, batez ere, erregaien prezioen jaitsierak (nabarmen igo ziren 2021eko azaroan) eta elektrizitatearen jaitsierak eragin zuten.